

PRENTSA-OHARRA

Zur gainean egindako *The Rewood* grafiti-lanak estaltzen ditu Zitudadelako Labeko hormak, Arte Hiritarreko FAUNA Jaialdiko grafiti-puska koloristak bilduta

Erakusketa berri honek joan den azaroan egin zen ekimenaren esangura eta garapenari buruzko argazkiak eta bideoak ere jasoko ditu

Gaurtik hasita eta uztailaren 1era arte, arte hiritarreko adierazpenek txoko bat izango dute Zitudadelako Labean. Komunitate Garapeneko zinegotzi ordezkari Esther Cremaesek eta Cantamañanas kolektiboko Jabi Landa "Corte" eta Javi Roldán "Pin" ordezkariak gaur goizean aurkeztu dute *The Rewood* erakusketa, joan den azaroan Arte Hiritarreko FAUNA Jaialdian parte hartu zuten hamaika artistaren beste hainbeste lan biltzen dituen. Grafiti-puskez gain, ikusgai paratuko dira hiru egun iraun zuen jaialdiko zenbait une erakusten dituzten argazki eta bideoak. Erakusketaren aurkezpenean, artistek gogora ekarri nahi izan dute Guillem "TREZE", FAUNA jaialdian parte hartu eta bere azken obra pintatu zuen egile katalana.

Atzera begirako erakusketa hau hainbat udalerritako artisten lanen sorta bat da, tokiko artistak ere barne hartzen dituen, honako hauez osatutako talde anitza eta heterogeneoa sortuz: CORTE, CHAPU, IMSE, NENU, DINO, JEDIS, SAOKA, ZURIK, TEGOS, AL eta PIN. FAUNA jaialdian zehar, zuzenean erakutsi zuten beren artea, eta bertatik bertara ikusarazi zituzten beren sormen-prozesuak, xede horretarako paratu ziren bi gainazal handitan margotuz. Erakusketaren lan guztiak jaialdiaren hiru egunetan sortu ziren, eta pintura horietako xehetasunak jarri dira ikusgai, bere garaian 150 m² inguruko gainazala estaltzen zuten pinturen zatiak. Orain, *The Rewooden* bitartez, horma-irudi horren puska koloristak bildu dira, eta nolabaiteko elkarrikeria sortu da estiloen artean, betiere ikusleak interpetatu asmoz.

Hori horrela, erakusketa honek FAUNAREN jarraipena izan nahi du; izan ere, urte askoren ostean Iruñean egin den hiri-kulturako lehen ekitaldia izan da, hip hoparen zenbait diziplina uztartu dituen ikuskizun, lantegi eta erakustaldien bitartez. Egileen ustetan, orain jaialdia aberastutako da, denbora-tarte baten ondoren egindako berrirakurketari esker, eta ekimenari balioa erantzen dion erakusketari esker.

Cantamañanas elkarteak izan da erakusketaren sustatzailea eta jaialdiaren antolatzaile-laguntzailea, eta xede du arte-hiritarra ikusaraztea eta horren barruko esperientziak eta

1. orrialdea, (e)tik 2



sorkuntzak transmititzea; aldi berean, elkarteak aintzat hartzen ditu, aberasgarri dituelako, aldaketa eta gizartearen parte-hartzea sustatzeko artea eta kultura tresna gisa baliatzen dituzten gazteen ideiak eta sorkuntzak.

THE REWOOD

- Datak: Maiatzak 17 – Uztailak 1
- Lekua: Zitudadelako Labea
- Edukia: arte hiritarreko lanak
- Bisita-ordutegia: asteartetik ostiralera, 18:30etik 21:00etara; larunbatetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 21:00etara; eta igandeetan, 12:00etatik 14:00etara

Iruñean, 2018ko maiatzaren 17an